



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
ZK/NRO 37000126	

Bertsozalea

www.bertsozale.com

2014ko EKAINA - 156. zenbakia

Transmisioa izango da Ahoa Bete Hots jardunaldien ardatza

Ahoa Bete Hots jardunaldien bosgarren edizioa egingo da uztailaren 2tik 4ra Amasa-Villabonan, Mintzola Fundazioak antolatuta. "Esan berriz, esan" leloa du aurtengoak eta transmisioa izango da ardatz nagusia. Matrikula egiteko epea ekainaren 25era arte luzatuko da.

Antzerki, bertsoaritzza, kantagintza eta ipuingintzaren transmisioari lotutako gaiak izango dira aurtengo Ahoa Bete Hots jardunaldien ardatz nagusia. Horretarako, transmisioaren garrantziari buruzko gogoetaz, esperientzia pertsonalez eta okasiorako egokitutako performanceez gozatzeko aukera izango da.

Hainbat galdera erantzun nahi dira Mintzolak antolatutako jardunaldiotan: "Transmisioa etetea kultura, eta zehatzago hizkuntza eteten dira; nola zaindu, nola olioztatu katea, ez dadin herdoil, ez dadin hautsi? Eten delarik zergatik izan da? Eta eten ez delarik? Nolako izan da gaur arteko transmisioa? Nolako behar luke hezkuntzan, familian,

gizartearen? Zer beste onura dakartza?"

Ahokotasunaren zein ahoko generoen transmisioan interesa duen oro asetzeko jardunaldiak dira. "Hezkuntzako irakasleak, euskaltegi, udaleku, barnetegi, antzerki, bertso-eskola, kantu eta ipuin irakasleak, gurasoak eta ahoko generoen transmisioa eragiten duten guztiak. Beraien guneetan praktikan jartzeko gogoeta eta esperientzien berri emango dute hizlariak. Esan gabe doa, antzerki, bertsoaritzza, ipuingintza zein kantagintzan ari diren sortzaile eta zaleak ere gogoan izan ditugula jardunaldiok antolatzerakoan".

Hiru egunez luzatuko da ekimena, uztailaren 2tik 4ra. Ekitaldi guztiak Amasa-

Villabonako Subijana etxean izango dira. Matrikula egiteko epea, berriz, ekainaren 4tik 25era luzatuko da eta, ohi bezala, Bertsozale Elkarteok bazkideok prezio berezia izango dugu.

Matrikularen eta jardunaldien inguruko xehetasunak www.mintzola.com webgunean aurkituko dituzue. Telefonoz ere eskura daiteke informazioa: (0034) 943 693870.



JONE URIBIA
Etxarri-Aranatz, 2014-IV-10

Gaia: Urtetan erabili dituzu sare sozialak nahi izan duzunari buruz idazteko. Azken polizia sarekadaren ondotik ez duzu berdin idazten.

Lehen edozer bertxiotzen maiz nabilen ni Twitter bidez nire hitzak ere sarri idatziz banuen nahiko interes. Batek ta bestek gero azaldu didate nahikoa babes azken boladan halan da ere dena egin dut aldrebes lehen hori zen gure askagune ta orain hori ere ez.

Berria entzun eta sentitu nintzen minduta, goibela. Niretzat behintzat horrek bazuen eta gaur arte nibela orain berriro dena isiltasun badaezpadako kautela baina ze kristo berriz hartu behar dut lehenagoko papela ta nahi badute pentsatzen dugun denok hartu gaitzate!

EGITARAUA UZTAILAK 2

08:30 - 09:00 Harrera / Karpeta banaketa
09:00 - 09:15 Sarrera
09:15 - 10:15 *Euskal kantagintzaren transmisioa*
Mikel Markez (Kantaria)
10:15 - 11:15 Kantua entzun; entzuna kanta
Amaia Zubiria (Kantaria)
11:15 - 11:45 Atsedenaaldia
11:45 - 12:45 *Zuberoako kantu transmisioa*
Maika Etxekopar (Kantaria / Antzerkilaria)
12:45 - 13:45 "Kantuz kanta" emanaldia: Euskal kantagintzan mugari izan diren abestien kantaldia, Mikel Markezen eskutik.

Aurkezle:
Egoitz Zelaia (Bertsozale Elkarte)

UZTAILAK 3

09:00 - 10:00 *Belarria soinu*
Joseba Tapia (Kantaria / musikaria)
10:00 - 11:00 *Transmisioaren garrantzia*
Jon Sarasua (Mondragon Unibertsitatea)
11:00 - 11:30 Atsedenaaldia
11:30 - 12:30 *Antzerkiaren transmisioa: Euskal*

Kultura? eta Libertetzeaz liburuetatik tiraka
Antton Luku (Idazlea / antzerki eragilea)
12:30 - 13:30 Mahai-ingurua: ahoko generoen transmisioa. Joseba Tapia, Jon Sarasua eta Antton Luku.

Aurkezle eta moderatzaile:
Eñaut Gantxegi (Antzerkizale Elkarte)

UZTAILAK 4

09:00 - 10:00 *Bertsolaritzaren transmisioa*
Xabier Amuriza (Bertsolari / idazle)
10:00 - 11:00 *Ipuinen transmisioa*
Antton Irusta (Ipuin kontalaria / irakaslea)
11:00 - 11:30 Atsedenaaldia
11:30 - 12:30 *Bertsolaritzaren transmisioaren eragina gazteen hizkuntza erabileran*
Miren Artetxe (EHUko ikertzailea / bertsoalaria)
12:30 - 13:15 Xabier Amurizaren eta Miren Amurizaren bertso saioa
13:15 - 13:30 Amaiera. Ziurtagirien banaketa.

Aurkezle:
Joxe Mari Carrere (Ipuin kontalaria Elkarte)

Gai-jartzaile Eskola **abiatuko da urrian**

Ekainean amaituko dute behin-behineko diseinua, iraila bitartean izen-emateko aukera izango da eta urrian abiatuko da Gai-jartzaile Eskola. Josu Goikoetxea izango da zuzendari eta datorren ikasturtean hilero bilduko da taldea. Hitzaldi tematikoak eta ariketak tartekatuko dira.

Hiru helburu nagusi ditu Gai-jartzaile Eskolak: gai-jartzaile lana eta ofizioa prestigiatzea, gai-jartzaileak trebatzea eta gaien inguruko gogoeta bideratzea. Plazan jarriko du begiratua eta horretarako beharrezko ikusten du Bertsozale Elkartek bertsolari eta gai-jartzaileen topalekua osatzea.

Josu Goikoetxea gai-jartzailearen esanetara bertsolari askok parte hartuko dute egitasmoan. Sustrai Colina Sustapen saileko arduradunak azaldu digu Josu Goikoren hautaketaren arrazoiak: "Urtetako ibilbide eta eskarmentua du, gai-jartzaile ofizioa ezagutu eta bizi du, eta bertsolari zein bertsozaleen onarpen handia du".

Gernikarrak onartu du proposamena eta Sustapen taldeko kideekin batera ari da lanean egitaraua osatzen.

Bederatzi eskola

Urritik maiatzera bederatzi eskola egun izango ditu Gai-jartzaile Eskolak. Saioak hileko lehen larunbat goizetan izango dira salbuespenak salbuespen, gehienak Amasa-Villabonan. Senperen, Iruñean, Gasteizen eta Durangon ere izango da saio bana.

Teoria eta praktika saioak tartekatuko dira: aurrez lotutako emaileek hitzaldiak eskainiko dituzte eta ondoren eztabaida foroak, tailerrak, ariketa praktikoak eta ikustaldiak egingo dira. Egitasmoaren barruan bi bertso saio egitea ere aurreikusten da. Zuzendariak borobildu eta lotuko ditu saioak elkarren artean.

Saioaren egitura, gaien planteamendua, hitzen ideologia, gaurkotasuna eta lekukotasuna, formulazioa, aurkezletza eta norbere bidea izango dira astez aste gai-jartzaile eskolan landuko diren gaietako batzuk.

Izen-ematea

Herrialdez herrialde txapelketako taldeetan aritu diren gai-jartzaileak, plazan dabilzanak, bertso eskoletako kideak eta ofizioa ikasteko interesa izan dezakeen jendeari zabaldua dago gai-jartzaile eskola. 15-20 ikasleko taldea aurreikusten da.

Izen-ematea ekainean ireki eta irailean itxiko da. Ekimen honen inguruko interesa duen orok sustapena@bertsozale.com helbide elektronikoan jaso dezake informazio gehiago.



Eskualdeetatik finalerainoko bidea hasi du Bizkaiko Txapelketak

Martxan dago Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2014, eta ia-ia urte osoko ibilbidea edukiko du: eskualdeetako kanporaketetatik Bizkaiko finaleraino.

Martxoan hasi ziren eskualdeak kanporaketak jokatzeko. Ostean, maiatzean jokatu dira eskualdeetako final guztiak. Asteburu guztietan egon dira finalak: hilaren 3an jokatu zen lehenengoa, eta 31n azkena. Guztira, zortzi eskualdetan jokatu dira: Arratian, Busturialdean, Durangaldean, Enkarterri-Ezkerraldean, Hego-Uriben, Lea-Artibain, Uribe Butroen eta Uribe Kostan.

Eskualde bakoitzeko txapeldunak zuzenean lortu du udazkenean jokatuko den Bizkaiko Txapelketarako txartela. Beste guztiak puntuazioen arabera sailkatuko dira.

Bertsolari horietaz gain, aurreko urteetan finalista izan direnek udazkenean has dezakete txapelketa. Horientzako izen-emate epea martxan dago oraindik.

Webgunea, martxan

Aurtengo Txapelketa hainbat helbururekin jaio da: Bizkaiko bertsogintzaren sarea osatu nahi du Txapelketak; oinarria sendotu,

eta sarea josten joan, familia handia osatu arte. Eta Txapelketa sare handi, anitz eta zabalaren erakusgarria izan dadin lortu nahi da.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketak bere txokoa dauka sarean: www.bertsozale.com/bizkaikotxapelketa Webgune horretan Txapelketari buruzko informazio guztia dago eskuragarri.

Bizkaiko Bertsozale Elkartek eskerrak eman nahi dizkie Txapelketa antolatzen dabilzan eskualdeetako antolatzaile, talde antolatzaile eta urte osoan boluntario beharretan ibiliko diren denei.



Martxoan hasi ziren eskualdeetako kanporaketak jokaten.//BBE

Euskal Herriko eskolarteko jaia, hilaren 21ean Orion

Herialdeetako saioak jokatu ostean, Euskal Herriko eskolarteko jaia ekainaren 21ean izango da, Orion. Egun osorako ekitaldia prestatu dute egun horretarako eta horien artean Euskal Herriko bat-bateko finaleko saioa izango da. Finala 11:00etan hasiko da Orioko Karela kiroldegian.

Herialde bakoitzetik sailkatutako 15 eta 18 urte bitarteko bi bertsolarik jardungo dute. Saioa Beñat Gaztelumendik aurkeztuko du, eta Maialen Lujanbiok jarriko dio Txapela irabazleari.

Sari nagusia partaide guztientzat abenduan egingo den negulekua izango da. 15-18 urteko bertso-eskoletako partaideek ere aukera izango dute izena emateko.

Bazkaria eta kamisetak

Finalaren ostean, 14:00etan bazkari herrikoa egingo da plazan. Bazkaria bertako produktu ekologikoekin egingo da, ENEEK (Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua) erakundeak lagunduta. Bazkalostean, plazako oholztan bertso-eskoletako haurren emanaldiak izango dira, eta Obaneuke taldearen erromeriak itxiko du eguna.

Herialdeetatik autobusak antolatu dira Orioko festara joateko.

Finalerako bazkari txartelak eta kamisetak eskuragarri daude www.bertsosarrerak.eu atarian.



Herialde bakoitzetik 15 eta 18 urte bitarteko bi bertsolarik kantatuko dute Oriotan.//XDZ



Puntu jarrita

XABI MAIA

BERTSOKLETA

Ba bai Beñat, iritsi ginan bai. Dударик izan al huen ala? Etzekiat zergatik ba, gure gorputz findu eta ziklista hankak ikusi eta gero... jeje!! Ahal genuen moduan "haritu" gintuan gu ere bizikleta gainean gure aldarriaren bozgorailu izan nahian.

Izan ere, Bertsokleta hori zen hasiera batean. Nafarroan zoritxarrez bizi dugun egoera baten salaketa egiteko tresna bat. Inposatutako bi marra ziztrin dira markatzen dutenak nork izan dezakeen eskuaraz ikasteko aukera modu errez eta duinean, eta nork egin behar dituen bakoitzaren aisialdirako ordukin puzzleak, hilabete bukaerara iristeko matematikak, errepidearekin egindako tratua maizter lanak eta bertze hainbat esfortzu, seme alabak noizbait nafar eta euskaldunak izateko esperantzarekin.

Eta horretarako Euskal Herrian barna abenturatxoa hasi zen, bertsoa aitzaki hartuta, eta ipurdiko mina lagun, lehen eskuko testigantzak zabalitzen hain modu ederrean hartu gaituzten txokoetan. Arras ezberdina baita, egoera baten berri hedabideetatik jasotzea etxeko sofan etzanda zaudela, edota egoera berdina egunez egun pairatzen duen familia baten ahotik zuzenean hartuta, botatako hitz bakoitzean eztarikiko dardarizoa eta begietako brillua suma daitekellarik.

Eta hasiera batean nion, ze gerora aunitzez gehiago izan da Bertsokleta niretzat. Bertso munduan hasi berria naizen honi, bertsolari zein bertso eskolen inguruko jende ezberdina ezagutzeko aukera eman baitit aldi berean. Jende zoragarria, berezi sentiarazi nauena, eskura zutena ezin modu zerbitzalagoan bizikleta gaineko sasi erromes baten eskura jarritz. Adeitasunaren alfonbra gorria. Eskarmile denei. Zer guttiago.

Eta abenturaren sustatzaile, tropeleko gidari eta taldeko arima izan den Oskar Sanz de Acedok, zer dio honen inguruan? Zu ere jatorri erdaldunekoa izaki, eskuararen iturritik nerabezaroan edaten hasi zinen, gaur egun bertsolari eta Bardoetako azken finalean ia lauhun lagun aitzinean kantatzera iritsi zara, alajaina, euskaldunberria izaki. Gaelikoz bertsoan hastera al da zure hurrengo erronka?

Koplak

Nafarroako Parlamentuak "Bertsolaritza irakaskuntzan" babestu du

Dakizuen moduan, "Bertsolaritza irakaskuntzan" programan kinka larrian dago Nafarroan, iaztik Hezkuntza Departamenduak finantzazioa erretiratu baitio. Nafarroako Parlamentuan egoeraren berri emateko hainbat lan-saio egin ostean, maiatzaren 27an "Bertsolaritza irakaskuntzan" programaren aldeko mozioa onartu zuten talde parlamentario guztiek, UPNk izan ezik. Mozioak Nafarroako Bertsozale Elkartek azken 27 urteotan egindako lana nabarmentzen du eta Nafarroako Gobernuari Bertsolaritza irakaskuntzan programa mantentzeko eta modu iraunkorrez finantza dezala eskatzen dio.

Poto-Finixa



Dena salgai omen dago mundu honetan;
bertsolaritza ez?

Bertsozale Elkartea

Bertsozalea euskarri digitalean jaso nahi?

Berripapera euskarri digitalean jaso nahi baduzu bidali mezu bat komunikazioa@bertsozale.com helbidera zure izen-abizenak eta berripapera jaso nahi duzun helbide elektronikoa zehaztuz. Bi erataro jaso nahi izanez gero, posta arruntez eta elektronikoz, adierazi mesedez eskaria egiterakoan.

Bertsolari Txapelketa Nagusia 2013



Liburua eta CDa
www.lanku.com

